



## KONFESIONEA

**Joanes Leizarraga**

Bertsio informatiko honen egilea: Josu Lavin; Urkiola, 1-1C 48990 - Getxo (Bizkaia).

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/L/LeizarragaKonfesionea.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabetasun Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

**Konfesioea** berdin argitaratu zen *Iesus Krist gure Iaunaren Testamentu Berriari* zein *ABC* delakoari itsatsirik (1571). Dena den, autonomia propioa duen testua da eta bereizita aurkezten da hemen.

## IESUS KRIST GURE IAUNAREN EBANJELIOKO DOKTRINA PURAREN

araura bizitzeko desira duten Franzesek  
konsentimendu komun batez beren fedeaz egin duten konfesioea.  
*Regeri egin izan zaion suplikatione batekin.*

### 1. *PIER*. 3. 15.

Zareten bethi prest ihardestera zuetan den speranzaz razoin galde egiten duen guziari, emetasunekin eta reberentiarekin.

## ADBERTIMENDUA

*Zer zergatik Relijioneak utzi edo kanbiatu ukan duten eta zer dadukaten iakin nabi duenak irakur bezá Konfesioe haur gogoatuki.*

Kontu komunezko eta xifrezko letren  
ezagutzeko Taula.



Balioa. Xifrea. Kontu komuna. Bat 1 I. Biga 2 II. Hirur 3 III. Laur 4 IIII. Borz 5 V. Sei 6 VI. Zazpi 7 VII. Zortzi 8 VIII. Bedratzi 9 IX. Hamar 10 X. Berrogei 40 XL. Berrogei eta hamar 50 L. Ehun 100 K. Borz ehun 500 D. Mill 1000 M. 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31 32 33 34 35 36 37 38 39 40 41 42 43 44 45 46 47 48 49 50 51 52 53 54 55 56 57 58 59 60 61 62 63 64 65 66 67 68 69 70 71 72 73 74 75 76 77 78 79 80 81 82 83 84 85 86 87 88 89 90 91 92 93 94 95 96 97 98 99 100

### IESUS KRIST GURE LAUNAREN

*Ebanjelioko puritatearen araura*

*bizitzeko desira duten Franzesek.*

## REGERI

Iainkoari esker eta laudorio draukagu, Iauna zeren Ebanjelioko doktrinari eta gure konszientietan bakez izateari iarreiki nahiz egin eta ordinarrioki egiten zaizkigun persekutionezko gogorgoaren zure Maiestateari aditzera emaitako lekuri oraindrano ez ukanik orain erakusten baitrauku ordu haur, zeinetan plazer baituzu gure gauzaren merezimendua aditu, aurthen 1559. Martxoan Anboisen emanik, zure Maiestateak publika erazi duen Ediktaren araura. Razoin hunegatik, zure ofizierez gureganako borondate gaixtoz lehen ezen ez zuri zerbitzu egiteko afektioez, guri egin izan zaikun bidegabearen eta gogorgoaren kausaz, oraindrano bozaturik edukirik, orain ahoen irekitera benturutzen gara. Eta egiteko huni dauritzan gauzetan konplituki informatua zarenzat, gure afektioez guziaz othoitz eta suplikamendu egiten drauzugu, Iauna: nahi duzun, othoi, ikusi eta enzun, guk zure Maiestateari presentatzen draukagun gure fedezko Konfesioea: eta esporzu dugu, ezen oraindrano gure kausa ezagutu gaberik, bidegabezki bethi gure kondemnatzez berze egitekorik ukan ez tutenek, gure kontra erran dituzten gaizki eta difamazione orotarik gure defendagarri eta enparagarri, Konfesioea haur bera asko izanen dela. Ezen egiazki eta frangoki protesta ahal dezakegu, Iauna, ezen hemen ez tuela Iainkoaren hitzaren, ez zure Maiestateari zor draukagun obediencia kontratako gauzarik batre: zeren gure fedeko artikulu hemen asko luzaki iarriek puntu haur baitakarkeite guziek, Ezen Iainkoak bere Profetez eta Apostoluez, eta are Iesus Krist bere Seme gure Iaunaren ahoz

asko klaroki bere borondatea deklaratu ukan draukunaz geroz, guk Iainkoaren hitzari ekarteko draukagula halako ohore bat eta reberentia bat non ezpaitraukagu deus eraxtekitoko ez edekiteko: baina-aitzitik hartan xedaturik emaiten zaikun reglari osoki susmetitzeko eta konfermatzeko gaitzaitzala. Eta zeren Eliza Romanoak, Eliza primitibako manera eta kostuma utzirik, manamendu berririk, eta Iainkoaren zerbitzatzeko manera berririk ezarri ukan baitu, razoinezko estimatu ukan dugu, eta guziz nezesario (gizonak bere ethortez baitirade gezurti eta bano izatera suiet, eta Iainkoa baita egia bera) gizonen manamenduetarik Iainkoaren manamenduek abantail haur luten, non, hanbat dibersitateren eta diferentiarren artean, gizonenak utzirik, Iainkoarenei garreizten. Eta zerere aiherkunde ahal bailukeite gure kontrastek gure kontra, frangoki Iainkoaren eta jenden aitzinean erran ahal dezakegu, ezen guk ikusten eta sufrizten dugun gaitz guzia, ez tuela berze kausagatik, lekat zeren Iesus Krist gure Iauna dela, gure Salbadore eta Redentore bakoitza: eta haren doktrina dela bizitzeko eta salbamendutako doktrina bakoitza, mantenitzen baitugu baizen. Eta kausa haur bera izan da, Iauna, zerengatik zure suiet gaixoen odolean hanbat aldiz borroeroek eskuak butxatuak ukan baitutuzte: eta gizonen naturalki Iainkoaren ohoreaz baino bere aisiaz eta probetxuz arrangurago dutenaren gainean, erran behar da, Konfesioea hunen beraren mantenitzeagatik eta on edukiteagatik bere bizien emaitera dudatu ez tuten gaixoak, gizonen ez berze espirituz inzitatuak eta gidatuak izan diradela. Bada Iauna, zuk zure suiet gaixoak baithara usatzeko prometatzen duzun ontasunaren araura, zure Maiestateari suplikamenduz giaizki miseriordia eta gratia haur egin nahi draukuzun, non har dezazun eskutan kausa hunen egitekoa, zeinagatik ordu eta oren oroz, gu, batean herioz, berzean akotamenduz, berzean berze moldez iarreikiak eta persekutatuak izanez, zuri zor drauzugun obediencia egiteko moien guzia edekiten baitzaiku. Biz bada, othoi, zure Maiestatearen plazera, Iauna, iragan denboretan suz eta marrezanez nehork usatu ukan duenaren orde: orain Iainkoaren hitz sailduaz debati eta ireter erazi dezazun gure Konfesioea haur, hunetakotzat seguranza eta permisione bethea emaiten duzularik. Eta konfidanza dugu ezen gure inozentiarren eta hogen-gabearen iuje zu zeuror izanen zarela, ezaguturik nola ez ten hemen ezeinere heresiarik ez rebellioerik: baina guk daramaguna dela, konszientia sanotan bizi ahal garen, Iainkoa bere manamenduen araura zerbitzatzu, eta zure Maiestatea obediencia eta suiektio orotan ohoratuz. Eta zeren Iainkoaren hitzaren predikationeaz, bai Iainkoaganako eta bai zureganako gure eginbidean retenitu eta eduki behar baikarade: gure afektio eta



ahal guziaz othoitz eta suplikamendu egiten drauzugu Iauna, nahi draukuzun permetitu, zenbeit orduz elkargana biltzera zillhegi garen, hanbat Iainkoaren hitzaz haren beldurrera exhortatu izatera, nola Jesus Krist gure Iaunak berak bere Elizan ordenatu dituen Sakramenduez konfermatu izatera. Eta baldin zure Maiestatearen plazera bada, zer gure kongregationetan egiten den, batbederak ikus dezakeen bezalako lekurik eman dakigun, ikuste berak defendaturen gaitu, gure kongregationeak difamatu nahiz aitzinaratu izan diraden enormitatezko eta beilhakeriazko akusatione falsuetarik: zeren hetan ezpaitu nehork modestiarik eta honestaterik baizen ikusiren, ez-eta enzunen Iainkoaren laudoriotako eta haren zerbitzurako exhortationerik, eta zure Maiestatearen eta zure Resumaren konserbationerako othoitzarik baizen. Eta baldin zure borondatea ezpada, Iauna, hanbat gratia egin dakigun, non leku asignaturik dugun, ezpere permiti bekigu othoi, ia gure artean iarria den ordenanza, enpatxurik gabe kontinua ahal dezagun. Eta hunen gainean gure afektione eta bihotz guziaz othoitz eta suplikamendu egiten drauzugu Iauna, nahi duzun othoi estimatu, orain presentatzen, zaizun suplikatione haur irakurtzen dantzunean, ezen zure suiet kontuz eriden ahal leiten baino gehiagoren auhenak eta suspirioak enzuten ditukezula, othoitzez zure miseriordiak irautsi nahi dituen, zure iujetarik anhitzen krudelitatez zure Resumako su bituak: halaz zure Maiestatea zerbitzatzen dugula, zu dignitate eta handirasun horretan ezarri zaituen Iaunaren zerbitzatzera haizu garenzat. Eta baldin gure minzoari behatu nahi ezpazaizkio, beha zakizkio Iainkoaren Semearenari, zeinek gure onen, gorputzen eta bizien ere gainean puisanza zuri emanik, galdegiten baitrauzu, gure arima bere odolaz erosien gaineko puisanza eta iaurgoa hari reserba eta lekat dakion. Hanbatekin, hari berari othoitz egiten draukagu Iauna, kure adinarekin zure handirasuna eta puisanza emendatuz, zure etsai ororen gainean biktoria emanetz, eginbide eta iustitia orotan bethi zure Maiestatearen thronoa konfirmatuz, bere Espirituaz ardura goberna eta gida zaitzala: eta guri ere hark berak zure aitzinean gratia eriden erazi diezagula othoi zerbait emendio gure suplikatione hunetarik sendi ahal dezagun, gure penak eta afliktioneak zerbait pasutara eta libertatera behin-behin kanbiaturik, gure nigar uriak ere kanbia ahal ditzagun bethi esker eta laudorio emaite batetara, lehenik Iainkoari eta gero zure Maiestateari, zeren halaz egin dukezun haren borondate sainduari eta zure ontasunari eta eginbideari dagokan bezala, baieta zure suiet eta zerbitzari gaixoen konserbationera guziz behar eta nezesarario dena.

## IESUS KRIST GURE IAUNAREN EBANJELIOKO

**doktrina puraren araura bizitzeko desira duten Franzesek konsentimendu komun batez beren fedez egin duten**

## KONFESIONEA

1 Guk dugu sinhesten eta ezagutzen Iainko bat bera dela, eta hura esentia bakoitz bat bera, espiritual, eternal, inbisible, muthatzen eztena, infinito, konprehendi ez erran ezin daitena, bothere guzitako, guziz zuhur, guziz on, guziz iusto, eta guziz miseriordioso.

2 Eta Iainko bat ber haur, gizonci zaie hunelako manifestatzen eta erakusten, lehenik bere obren kreatzeaz, konserbatzeaz, eta gobernatzeaz. Berzalde are klarokiago, bere hitzaz: eta hitz haur manifestatu ukan du lehenik bisionez eta rebelationez: eta gero nahi ukan du liburutan eskribuz iar ledin, eta liburu hauk ditugu deitzen Eskriptura saindu.

3 Eta Eskriptura saindu haur guzia kontenitzen da Testamentu zaharreko eta berriko liburu kanonikotan, eta haien kontua da haur. Moisesen borz liburuak dirade, Jenesia, Exodoa, Lebitikoa, Nonbreak, Deuteronomiea: gero, Iosue, Iujeak, Ruth, Samuelenik bi liburu. Regenik bi liburu. Kroniko edo Paralipomenon deitzen diradenik, bi liburu. Esdrasen lehen liburu: gero Nehemias, Esther, Job, Dabid-en Psalmuak, Salomonen Proberbioak, Eklesiastea, Salomonen Kantikoa, Esaias, Ieremias, Ieremiasen Lamentationeak, Ezekiel, Daniel: gero hamabi Profeta xipiak, baitirade, Oseas, Ioel, Amos, Abdias, Ionas, Mikeas, Nahum, Abakuk, Sofonias, Agjeo, Zakarias, Malakias: gero Iesus Kristen Ebanjelio saindua, S. Mattheuen araura, S. Mark-en araura, S. Luk-en araura, S. Ioanen araura. Apostoluen Akteak: gero S. Paulen Epistolak, Romanoetara bat Korinthianoetara biga. Galatianoetara bat, Efesianoetara bat, Filipianoetara bat, Kolosianoetara bat, Thesalonizeanoetara biga, Timotheogana biga, Titegana bat, Filemongana bat: gero Hebraikoetarako Epistola: S. Iakesen Epistola: S. Pierrisen bi Epistolak: S. Ioanen hirur Epistolak: S. Iudaren Epistola: S. Ioanen Apokalipsea edo Rebelationea.



4. Liburu hauk ezagutzen ditugu Kanoniko, eta gure fedearen egiazko regla dadutzaguz, eta haur ez Elizaren konsentimendu batgatik ber, baina ungiz areago Espiritu sainduaren testimoniaje, eta barnetiko seguranza egiazko batgatik, zeinek liburu hauk diszerni eta berez eraziten baitrauzkigu berze liburu Eklesiastikoetarik, zein probetxable izanagatik, ezpaitirade ordea halako non hetarik fedeko artikulurik batre funda ahal dadin.

5 Guk dugu sinhesten ezen erran den liburu hautako hitza Iainkoaganikoa dela eta harenganik beraganik duela bere autoritatea eta ez gizonetarik. Eta nola hitz hura baita egia ooren regla, kontenitzen duelarik Iainkoaren zerbitzuko eta gure salbamendutako nezesario den guzia, diogu ezen ez tala sori gizonen ez are Aingeruen ere hitz hari deusen eraxtekiea, edekitea edo kanbiatzea. Hunek dakarke ezen ez antikitaterik, ez kostumarik, ez jende anhitzik, ez gizonen zuhurtasunik, ez iujemendurik, ez arrestik, ez ediktik, ez dekretik, ez konziliorik, ez rebelationerik, ez mirakalurik batre etzaiola Eskriptura diogun huni neholetan ere, ez deusetan ere kontrariatzeko, baina aitzitik hunen araura behar diradela Kristinotasuneko puntu guziak examinatu, reglatu eta reformatu. Eta hunen tenorez guk ditugu laudatzen eta aboatzen hirur Sinboloak, da iakiteko, Apostolikoa, Nizenoa, eta Athanasiorena, zeren Iainkoaren hitzarekin konforme baitirade.

6 Eskriptura saindu hunek irakasten gaitu, ezen esentia dibinal bakoitz eta ber erran dugun hunetan, diradela hirur persona Aita, Semea eta Espiritu saindua. Aita, lehen kausa eta gauza guzien lehen orijinea eta fundamenta: Semea, haren hitz eta sapientia eternala: Espiritu saindua, haren beraren berthutea, potentia eta efikazioa. Semea eternalki enjendratu izan da Aitaganik. Espiritu saindua eternalki prozeditzen da Aitaganik eta Semeaganik: eta hirur persona hauk ez tirade konfus, baina zein bere: ez ordea separatuak, baina esentia, eternitate, puisanza, eta ekalitate batetako. Eta misterio hunetan aprobatzen eta aboatzen dugu Konzilio zaharrez determinatu izan dena: eta doktor saindu anzianoez, hala nola, Athanasioz, Hilarioz, Zirilloz, Anbrosioz, eta berzez, Iainkoaren hitzaren berthutez iraitzi izan diraden sekta eta heresia guziak ditugu detestatzen eta abhorritzen.

7 Guk dugu sinhesten ezen Trinitateko hirur personek elkarrekin batean obratzen zutelarik, Iainkoak bere bothere, sapientia eta ontasun inkonprehensibileaz kreatu ukan dituela gauza guziak, eta ez solament

zerua eta lurra eta hetango guzia, baina espiritu inbisibleak ere bai: eta hetarik, batzu erori izan diradela, perdicionetara: eta berzek obedientian persistitu eta iraun ukan dutela. Eta diogu eroriak, nola malitiatan korrunpituak baitirade diradela ungi ooren, baieta Eliza guziaren etsai: eta berzeak, Iainkoaren gratiaz preserbatu eta begiratu izanik, diradela Iainkoaren izenaren gloriatan eta elejituen salbamendutan enplegatu izateko Ministre.

8 Guk dugu sinhesten ezen Iainkoak ez tituela solament kreatu ukan gauza guziak, baina rejitzen eta gobernatzen ere badituela, munduan gertatzen den gauza guzia bere borondatera dispausatuz eta ordenatuz: ez ordea gaitzaren author den, ez hogendun ahal daten, zeren haren borondatea baita zuzen eta eginbide ooren regla subiranoa eta egiazkoa: baina haren moienak dirade hanbat mirakuluzko, non deabruetz eta gaixtoez hala zerbitzatzan baita, non baitaki hek egiten duten eta hek hogendun diraden gaizkiaren onera konbertitzen. Eta konfesatzen dugunean ezen deus ez tala egiten Iainkoaren probidentia gabe: guk ditugu humilitaterekin adoratzan haren sekretu guri estaliak, gure kapazitateak emaiten duen baino aitzinago inkiritzen ezgarelarik, baina aplikatzen dugularik gure probetxutara Eskriptura sainduan erakusten zaikun guzia, reposetan eta segurantzatan garenzat zeren gauza guziak bere suiektionean dituen Iainkoak, aitatasunezko artha batez beillatzen baitu gure gainean halako maneraz non ezpaita bilo bat ere gure burutik eroriren haren borondatea gabe: eta bizkitartean deabruak eta gure etsai guziak hala dadutza bridatuak, non kalterik batre ezin baitaidigute haren konjitatekin baizen.

9 Guk dugu sinhesten ezen gizona xahu eta konplitu, eta Iainkoaren imajinaren konforme kreatu izanik, rezebitu zuen gratiatik bere falta proproz erori izan dela, eta halatan Iainkoaganik (zein baita iustitia eta ontasun ooren ithur burua) alienatu izan da halako maneraz, non haren natura xoil korrunpitu izan baita: eta bere espirituan itsuturik eta bere bihotzean gaixaturik, galdu ukan du integritate eta perfektione guzia, batre libertu ez gelditu gabe. Eta hark ukanagatik onaren eta gaitzaren gainean zerbait diskretione, badarik ere guk dugu erraiten ezen hark bere ethortez ahal lukeen klaretatea ilhunbetara konbertitzen dela. Iainkoaren bilhateaz kestione denean: halako maneraz non bere adimenduz ez razinez neholetan ere harengana ezin hurbil baitaite. Eta ukanagatik edozein gauzaren egiteko borondate bat, guziagatik ere borondate hura dela diogu hala bekatuaren azpian gathibatuak non Iainkoak emaiten draukan liberteaz berzerik ezpaitu.



10 Guk dugu sinhesten ezen Adamen leinu guzia kotsu hunez kotsatu izan dela, zein baita bekatu orijinala, baita atxakio heretajezko bat, eta ez solament imitationezko bat Pelajianoek erran nahi ukan duten bezala: eta halakotz hek ditugu abhorritzen, eta dadutzagu detestationetan bere erroretan. Eta eztugu estimatzen inkiritu mengoarik dela, nola eta zer moldez bekatua gizon batetik berzeratzen den: ikusirik ezen asko dela iakitea, ezen Iainkoak Adami eman ukan zeraukana, etzela haren dako ber, baina haren leinu guziaren ere: hala nola gu haren personan ontasun oroz billuzirik eta gabeturik paubrezia eta maledikzione guzitara trebukatu eta erori izan baikara.

11 Guk dugu halaber sinhesten ezen atxakio haur dela egiazki bekatu, eta halako non leinu humano guziaren baieta haur xipien ere, amen sabeleandanik kondemnatzeko asko, eta halakotan estimatzen dela Iainkoaren aitzinean: etare batheiatu ondoan ere, bethi dela bekatu, hogenaz den bezenbatean, kondemnationea Iainkoaren haurretan abolitu eta iraungi izanagatik, zeren hark bere ontasun gratiazkoagatik ezpaitraue bekatua inputatzen ez kontatzen. Eta gehiago, ezen atxakio hura dela halako konditionetako, non bethiere gaixakeriatako eta desobedientiatako frukturik egiten baitu: halako manieraz non diraden sainduenek ere, hari resistitzen eta bihurtzen enseiatzen bazaizkio ere infirmitatez eta faltaz atxakiatu izatea mundu hunetan diradeno ezpaitute utziten.

12 Guk dugu sinhesten ezen gizon guziak hatzaman eta hundatu izan diraden korrupzione eta kondemnatione hunetarik, retiratzen eta delibratzen dituela Iainkoak bere ontasunagatik eta miseriordia-gatik bere konseillu eternalean eta kanbiatzen eztenean, konsiderationerik, batre haien obretara ukan gabe, Iesus Krist gure Iaunean elejitu ukan dituenak, eta hura bera baithan bizitze eternaleko herederotan adoptatu ukan dituenak: berzeak korrupzione eta kondemnatione hartan berean utziten dituela, hautan bere iustitia erakuts dezanzat, lehenetan bere miseriordiaren abundantia bezala. Ezen bere ethortez batak eztirade berzeak baino hobe, Iainkoak munduaren kreationea baino lehen, bere konseillu eternal Iesus Krist baithan determinatu zuenaren araura diszerni eta berez ditzakeno. Eta nehor halaber bere berthutez ontasun handi hunetan ezin partizipant egin daite: zeren gure naturaz higitze ez afekzione ez pensamendu bat ere onik ezin baitukegu, Iainkoak behin hartara preueni, eta dispausa gaitzakeno.

13 Guk dugu sinhesten ezen gure salbamendukotzat behar eta nezesario genduen guzia emaiten eta komunikatzen zaikula Iesus Krist Iaunean eta bere burua gure salbamendutan emanik, hura egin izan zaikula gure sapientia, iustitia, sanktifikazione eta redemptione: halako manieraz non harenganik aldaratzen denak Iainko Aitaren miseriordiaz, gure itzurtbide eta refujio bakoitzaz renuntiatzen eta arnegatzen baituke.

14 Guk dugu sinhesten ezen Iesus Krist, Iainkoaren sapientia eta Seme eternal zelarik, bezitu izan dela gure haragiz, persona batetan lizenzat Iainko eta gizon, gure irudiko, gorputzetan eta arimatan sufri ahal lezakeen bezalako, salbu makula guzitarik xahu eta pur izan baita. Eta haren humanitateaz den bezenbatean hura izan dela egiazko Abrahamen eta Dabid-en hazia: Espiritu sainduaren berthute misteriozkoz konzebitu izan bada ere. Eta hunetan aborritzen eta iraitzen ditugu anzianoki Elizak trublatu dituzten heresia guziak: guzien gainetik Serueten imajinatione deabrukeriazkoak, zeinek atribuitzen baitrauka Iesus Iaunari dibinitate fantasiazko bat, zeren hura den gauza ororen idea eta patroina: eta hura du deitzen Iainkoaren Seme personala, edo signifikazionezkoa: finalki, hirur element kreatu gaberikoz egin izan den gorputz bat forjeatzen drauka, eta ditu nahastekatzen eta desegiten bi naturak.

15 Guk dugu sinhesten ezen Iesus Kristen persona batetan berean, bi naturak egiazki eta separa ezin daitezkeen bezala diradela iunktatuak eta bat eginak, ordea bi naturetarik batbedera dagoelarik zein bere propietatean, halako manieraz non, hala nola koniunkzione eta batasun hunetan, natura dibinoa bere propietate bera edukiten duelarik libertu eta azkendu izan baita kreatione gabe, infinito, eta gauza guziak bethatzen dituelarik, halaber natura humanoa libertu eta gelditu izan da finito, bere forma duelarik, neurria eta propietatea: etare Iesus Kristek bere resurrektionean bere gorputzari immortalitate eman ukan badrauka ere, eztrauka halakotz edeki ukan bere naturaren egia. Bada guk dugu hura hala konsideratzen bere natura dibinoan, non ezpaitugu bere humanitateaz billutzen.

16 Guk dugu sinhelten ezen Iainkoak bere Semearen igortez bere gureganako amorio eta ontasun inestimablea erakutsi ukan duela, hark herio iraganik, resusztatuturik eta iustitia guzia konpliturik bizitze zelestiala akisi eta irabaz liezagunzat.

17 Guk dugu sinhesten ezen Iesus Krist gure Iaunak krutzean ofrendatu ukan duen sakrifizio bakoitzaz rekonziliatu eta baketu izan garela



Iainkoarekin, haren aitzinean iusto estima eta rezebi gaitezenezat: ezen gu haren gogarako, ez haren adoptionean partizipant ezin garate, bekatuak barkatzen eta ohortziten drauzkigun bezenbatean baizen. Bada guk dugu protestatzen eta deklaritzen ezen Iesus Krist dela gure ikuzgarri konplitu eta perfektoa, eta haren herioan dugula, gu hogendun garen falta eta inikitate guzien satisfaktione osoa eta konplitu: eta berze remedioz batez ere ezin delibra ez enpara ahal gaitezkel.

18 Guk dugu sinhesten, Dabid-ek dioen bezala, ezen gure iusto izatearen eta dohainontasunaren fundament guzia dela fundatua gure bekatuen barkamenduan. Kausa hunegatik, Iainkoaren aitzinean gure iustifikatzeko, hunezaz berze moien guziak guk ditugu abhorritzen eta detestatzten: eta ezinere berze berthutez ez merituz deus presumitzen ez tugularik Iesus Kristek egin duen obedientian, sinpleki gelditzen eta arrastatzen gara, zein inputatzen eta kontatzen baitzaiku, hanbat gure bekatu guzietz barkamendu ukaiteko, nola Iainkoaren aitzinean fabore eriden eraziteko. Eta egiazki dugu sinhesten ezen baldin fundament hunetarik den gutiena ere aldara bagintez, berzetan reposik ezin eridenez, ginandela baramendurik batre gabe gure bihotzetan hara huna erabiliak: zeren sekulan ezin bakez baikinande Iainkoarekin, Iesus Kristen amorez miseriordiatan rezebituak eta onhetsiak garela segura gaitezkeno, nola gure ethortez gaitzerizterik eta kondemnationerik baizen ezpaitugu merezi.

19 Guk dugu sinhesten ezen moien hunez beraz dugula, gure Aita erakutsiren delako konfidanza betherekin, Iainkoaren inbokatzeko libertate eta pribilejio. Ezen ezgenduke akzesik ez sartzerik batre Iainko Aitagana, Ararteko hunegana buru egin ezpageneka: eta hunen izenean enzun izatekotz, hunenganik gure bizia eduki behar dugu, gure egiazko buruanik bezala.

20 Guk dugu sinhesten ezen iustitia eta gratia hunetan partizipant garela fede hutsez, nola erraiten ere baita, ezen sufritu ukan duela guri salbamendua irabaz liezagunzat, hura baithan sinhesten duenik gal ez tadinat: eta haur egiten da, zeren bizitze eternalaren ukaiteko hura baithan emaiten zaizkigun promesak aplikatzen baitirade gure probetxutara: eta senditzen dugu haien indarra hek akzeptatzen ditugunean, dudatzen ez tugularik ezen Iainkoaren ahoz seguratuak garenaz geroz, ezgarela engantuatik ikanen. Bada fedez obtenitzen dugun iustitia haur, dependitzen da Iainkoak on darizkula deklaritzen eta testifikatzen draukun promes gratiazkoetarik.

21 Guk dugu sinhesten ezen fedean Espiritu sainduaren gratia sekretuz illuminatzen garela, halako maneraz non hura baita Iainkoak plazer duenei emaiten drauen dohain gratiazko bat eta partikular bat: hala non fidelek ezpaitute zerzaz glorifika ditezten, baina dirade obligatuagoak, zeren berzetarik abantail preferitu izan diraden: eta etzaie elejituei fedea emaiten behin bide onean ezarteko solament: baina finerano hartan kontinua eraziteko ere bai: ezen hatsea bezala akabatzea ere Iainkoari apertennitzen zaio.

22 Guk dugu sinhesten ezen fede hunez beraz bizitze berritara rejeneratzen garela, naturalki bekatuaren esklabo garenaren gainean. Bada sainduki eta Iainkoaren beldurrean bizitzeko gratia fedez rezebitzen dugu, Ebanjelioaz emaiten zaikun promesa rezebituz, zein baita ezen Iainkoak emanen draukula bere Espiritu saindua. Bada hanbat falta da fedea ungi egitetik hotzen edo harzaratzen gaituen, non gure obra on guziak hark egiten baititu gutan, fruktuak arboretik heldu diraden moldera Gainerakoaz, Iainkoak konplitu salba gaitzanzat rejeneratzen eta sainduki bizitzera reformatzen bagaitu ere: guk dugu konfesatzen ezen haren Espirituaren gidamenduz egiten ditugun obra onak ez tiradela kontutara ethorten hek gu iustifika gaitzatenzat, edo Iainkoak bere haurretan eduki gaitzan merita diezagutzen: zeren bethiere baikinande dudatan eta sosagu gabe, baldin Kristek kito egin gaituen satisfaktionean gure konszientiak reposatzen eta sosegatzen ezpalirade.

23 Guk dugu sinhesten ezen Legeko figura guziek fin hartu ukan dutela, Iesus Kristen ethortearrekin: baina zeremoniak gehiagorik usajetan eta kostumatan ez izanagatik, konplimendu guzia duenaren personan libertzen eta gelditzen zaiku zeremonietako substantia eta egia. Gainerakoaz, hanbat gure bizitzearen reglatzeko, nola Ebanjelioko gauzak aitzinetik prometatuak ziradela iakiteko eta haien konfermatzeko, Legeaz eta Profetez aiutatu eta zerbitzatu behar gara.

24 Guk dugu sinhesten ezen gure Adbokat eta ararteko bakoitzetan Iesus Krist eman izan zaikunaz geroz, eta hark berak haren izenean frangoki Aitagana retira gaitezen manatzen gaituenaren gainean: etare zeren ezpaitzaiku permetitzen othoitzerik dagigun Iainkoak bere hitz sainduan ordenatu eta eman draukun forman baizen diogu bada, guk dugula sinhesten ezen gizonek Saindu hilen interzesioneaz den bezenbatean imajinatu duten guzia ez teta abusu bat eta enganio bat baizen, othoitze egiteko egiazko formatik nehoren erauz eta aldaragarri baizen. Eta halaber guk



ditugu abhorritzen eta iraitzen, Iesus Kristek bere herioaz eta pasioneaz egin duen sakrifizioaren mendrezale eta ezeztazale bezala, gizonek bere buruen Iainkoa baithan redemitzeko presumitzen dituzten berze moien guziak. Gehiago guk dadukagu ezen Purgatorioa dela ezeinere Eskripturarako fundamentik gabe eritheitze bat, illusionezko eta enganiozko botiga beretik ilkia. Eta hartarik beretik ilki izan dirade fraide eta serora izateko, baieta saindoren edo beillara ioaiteko bot eta promes guziak: berzalde, ezkonzaren eta bianden defensione, egun iakinen obserbatzeko zeremonia, konfesion aurikulara, iubileu, perdonanza eta jeneralki barkamendu eta salbamendu meritatu ustezko berze manera guzia. Eta hauk eta hunelako berze guziak ditugu arbuiatzen eta iraitzen, ez solament hetango meritutako opinione falsuagatik: baina zeren konszientien karkagarritako inbentione gizonen ordenatuak diraden ere bai.

25 Eta zeren mundu hunetan ezpaikara gauditzen Iesus Kristen presentiaz Ebanjelioaren moien bezala, guk dugu sinhesten ezen haren autoritatez Elizan ordenatu eta iarri izan den disziplina sainduki eta fermuki begiratu behar dela. Bada Eliza ezin konsisti daite, baldin hartan irakasteko kargua dukeiten pastorak ezpadirade: eta hek bidezki deithuak diradenean, eta fidelki bere ofizioa egiten dukeiten orduan, ohoratu eta reberentiarekin enzun behar dirate. Eta haur ezta ordenatu izan, Iainkoa hunelako aiutaren ezpa moien baxo hauen suiet ez behar delakotz, baina zeren hunelako bridaren azpian eduki eta entretenitu nahi baikaitu. Eta hunetan guk ditugu abhorritzen, hetan den bezenbatean, Iainkoaren hitzaren predikationea eta haren araeuzko Sakramenduen administratonea enpatxatu eta desegin nahi duten fantasiazu guziak.

26 Guk dugu bada sinhesten ezen nehor eztela bere gain apartatzeko, ez bere manera berezi batez kontentatzeko, baina guziek elkarrekin behar dugula begiratu eta entretenitu Elizaren unitatea eta batasuna instruktione komunera eta Iesus Kristen uztarrira submetitzen garelarik: eta haur, non ere Iainkoak bere hitzaren araura Eliza politiatu bat ezarri baituke, Majistratuak edo haien ediktak kontrario liraten orduan ere: eta diogu Eliza hunetara renjeatzen eta biltzen eztiradenek edo hartarik separaten diradenek Iainkoaren ordenanza hausten dutela, eta hari kontrastatzen zaitzala.

27 Guk dugu sinhesten ezen zorrotzki eta Eskripturaren araeuzko razoin eta iujemendu batez gogoatu eta ezagutu behar dela zer eta zein den egiazko Eliza: zeren titre eta izen hunez sobera gaizki nehor abusa-

tu ukan baitu. Guk bada Eskripturaren araura diogu ezen Eliza dela Iainkoaren hitzari, eta hartarik dependitzen den religione purari gogotik iarreikitera iunktatzen eta behatzen zaion fidelen konpainia, hitz hartan batbedera bere mende guzian probetxatzen eta Iainkoaren beldurrean aitzinaratzen eta konfirmatzen delarik ardura gehiago aitzineratu eta abanzatu behar denaren araura:ordea zenbat ere fidelak hitz hunen araura bizitzen enseia baititez ere, bethi bere bekatuen barkamenduaren ukaitera bere rekursa ukan behar dute. Baina eztugu erran nahi, fidelen eta onen artean eztiradela hipokritak eta reprobatuak ere: baina halakoen malitiak ez gaixakeriak ezin enpatxa dezake Eliza ezten Eliza.

28 Eta sinheste hunen araura guk dugu protestatzen eta deklaritzen ezen Iainkoaren hitza rezebitzen eta haren suiet izateko profesionerik egiten, eta egiazki Sakramendurik administratzen ezten lekuan, nehor propriki minzatera ezin erran dezakela han Elizarik dela. Eta kausa hunegatik guk ditugu abhorritzen Aitasaindu erraiten denaren araeuzko sinagogak eta kongregationeak, zeren hetarik Iainkoaren egiazko hitza banitu eta akotatu izan baita, eta Sakramenduak haien artean korrumpitu, falsifikatu eta xoil ezeztatu izan baitirade baieta zeren idolatria eta superstitione guzia hetan baita bogatan: Guk dadukagu bada ezen halako egitatetan nahastatzen eta partizipatzen diradenek, Iesus Kristen gorputzetik eta haren egiazko Elizatik bere buruak separaten eta trenkatzen dituztela. Guziagatik ere zeren zerbait Eliza-restanza apur baita oraino Aitasaindutasun erraiten denean, eta guziz zeren Baptismoaren substantia gelditu izan baita, eta berzalde zeren Baptismoaren efikazioa eta berthutea ezpaita hura administratzen duenaganik dependitzen: guk dugu aithortzen eta erraiten ezen han behin batheiatu izan diradenak eztiradela berriz batheiatu behar. Baina hartan ere egiten diraden korrupcionegatik, guk diogu, nehor ezin haurrak Iainkoaren ordenanzari bidegabe egin gabe hartara presenta ahal ditzakela.

29 Egiazko Elizaz den bezenbatean, guk dugu sinhesten ezen hura behar dela gobernatu Iesus Krist gure Iaunak ordenatu eta ezarri ukan duen politiararen araura, eta hartan behar diradela Pastorak, Surueillantak eta Diakreak, doktrinaren puritateak bere kursua duenzat, eta faltak korrijituz eta korriji eraziz, paubreak, eta berze aflijitu guziak bere beharretan sustengatuz, kongregationeak Iainkoak manu bezala handien eta xipien edifikatonean egin ditezenzat.





30 Guk dugu sinhesten ezen egiazko Pastor oro, non ere baitirade, bere ofizioaren exerzitatzear den bezenbatean, zein bere leketan autoritatez eta puisanzaz bardin diradela, Buru bakoitz baten azpiko diradelarik, zein baita Iesus Krist Iauna Ipizpiku subirano, eta unibersal bakoitz. Eta kausa hunegatik, ezen ezinere Elizak ezuela dominationerik ez iarguarik usurpatzeko berze Elizaren gainean.

31 Guk dugu sinhesten ezen nehor bere buruz ez bere autoritate propriz Eliza kargurik ukaitera eztela abanzatzeko: baina haur behar dela egin elektionez, Iainkoak permetitzen duen eta egin ahal dadin lekurano. Eta exzeptione haur eratzekiten dugu expresuki, zeren zenbeit orduz, baieta gure denboran, Elizako estatua guzietan korrunpitua zenean, behar izan baita Iainkoak fazoin extrordinario batez igorri eta ezarri ukan duen jende. Eliza desolatuen drezatzeko eta xuxenzeko. Baina nola ere izan baita, guk dugu sinhesten ezen regla hunetara nehor konformatu behar dela: eta Pastor, Surueillant eta Diakre guziek testimoniaje behar dutela, nola bidezki deithu izan diraden.

32 Guk dugu halaber sinhesten ezen on eta behar dela superintendent izateko elejitu diradenek, gogoia eta ordena dezaten elkarren artean Eliza gorputz guziaren rejimenduan zer moien eduki behar den: baina Iesus Iaunaz eman izan zaikun ordenanzatik neholetan ere aldaratu gabe: eta hunek eztu enpatzatzen ezten ordenanza partikularik lekuen eta jenden araura.

33 Baina hunen gainean beretzen eta iraitzen ditugu, nehork Iainkoaren zerbitzu balirade bezala, konszientien kargutan eta suiektionetan ezarri nahi litukeen inbentione humano eta lege guziak: baina solament akzeptatzen eta rezebitzen dugu konkordiaren eta batasunaren entretenitzeko, eta lehenaganik azkeneranokoaren obedientiatan edukiteko on eta moldezko den ordenanza guzia. Eta hunetan iarreiki behar giazkio, exkomunikationez den bezenbatean, Iesus Iaunak deklaratu ukan duenari, eta hura dugu aprobatzen eta laudatzen, baieta konfesatzen ezen bere forma eta dependentia ororekin nezesarioki eduki eta begiratu behar dela.

34 Guk dugu sinhesten ezen Sakramenduak Hitzari iunktatuak diradela eta hari datxetzala, gure konfirmatione handiagotan Iainkoaren gratiaren bahi eta erres ditugunzat, eta moien hunez, gutan den infirmitatearen eta grosertasunaren kausaz, gure fedea solajea eta aiuta dadinzat: eta dugu sinhesten ezen Sakramenduak diradela halako signo exterior eta

merka bisible, non Iainkoak hezaz operatione egiten baitu bere Espirituaren berthutez, deus alfer hetan signifika eztezagunzat: guziagatik ere guk dadukagu ezen haien substantia eta egia guzia Iesus Krist Iaunean dela, eta baldin nehork harenganik separa baditza eztiradela itzal eta lanho baizen.

35 Eta guk dugu konfesatzen ezen bi Sakramendu diradela solament, eta hek diradela Eliza guziaren komun: eta hetarik lehena, baita Baptismoa, eman izan zaiku gure adoptionearen zertifikanzatan: zeren han xarthatzen baikara Iesus Kristen gorputzarekin, haren odolaz ikuzirik eta xahaturik, haren Espirituaz sailduki bizitzera arranberrit gaitezenzat. Guk dadukagu halaber, ezen behin baizen batheiatzen ezpagara ere, hartan signifikatzen eta aditzera emaiten zaikunaren probetxua, gure bizi guzira eta hileria heltzen dela, signadura eta zigulu irautetako bat dugunzat, nola Iesus Krist iustitia eta sanktifikatione izanen zaikun: eta Baptismoa izanagatik fedezko eta penitentiazko Sakramendu bat, badarik ere Iainkoak bere Elizan rezebitzen dituenaz geroz haur xipiak bere aitekin, guk dugu erraiten ezen fideletarik enjendratu diraden haurrak Iesus Kristen autoritatez batheiatu behar diradela.

36 Guk dugu konfesatzen eta edukiten ezen Zena saildua (baita bigarren Sakramendua) dela Iesus Kristekin dugun batasunaren testimoniaje bat eta zertifikanza bat, ez solament zeren guregatik behin hil eta resusztatuta izan den, baina zeren bere haragiaz eta odolaz egiazki substantiatzen eta hatzen ere baikaitu, harekin bat garenzat, eta haren bizitzera komun dugunzat. Eta munduaren iujeatzera dathorren arteranokotz hura zeruan izanagatik, guk dugu sinhesten ezen hark bere Espirituaren berthute sekretuz eta konprehendi ezin daitenez, bere gorputzaren eta odolaren substantiaz hatzen eta bibifikatzen gaituela. Baina guk diogu ezen haur egiten dela espiritualki, ez efektoaren eta egiaren orde imajinationerik eta pensamendurik ezar dezagunzat, baina zeren misterio hunek bere goratasunaz gure adimenduaren neurria, eta ordenanza natural guzia iragaiten baitu: eta labur erraitera, zeren zelestial baita, fedez baizen ezin konprehendi daite.

37 Guk dugu sinhesten, erran den bezala, ezen hanbat Zenan nola Baptismoan Iainkoak realki eta konplituki emaiten draukula efektuez eta egingez hetan figuratzen eta representatzen zaikun guzia: eta halakotz, emaiten zaizkigun signoekin guk dugu iunktatzen eta bat egiten han presentatzen zaikunaren posesione eta gaudimendu egiazkoa: eta razoin



hunegatik diogu ezen Jesus Kristen Mahain saindura fede pur bat, unzi baten anzora, ekarten duten guziek, egiazki rezebitzen dutela signoek testifikatzen dutena: erran nahi da, ezen Jesus Kristen gorputza eta odola hain diradela arimaren ianhari eta edari, nola ogia eta mahatsarinoa baitirade gorputzaren.

38 Bada guk dadukagu ezen ura element kaduk eta desegiten den bat izanagatik, hark, Jesus Kristen odolaz eta haren Espirituaren efikazioz egiten zaikun barneko ikutzea testifikatzen draukula: eta ezen Zenan emaiten zaikun ogiak eta mahatsarinoa egiazki substantiatzen eta hatzen gaituela espiritualki: zeren, nola hartakotzat ordenatu izan baitirade, begien aitzinean bezala erakusten baitraukute ezen Jesus Kristen haragia dela gure bianda, eta haren odola dela gure edari. Eta abhorritzen ditugu signo eta merka hauk rezebitu nahi ezituzten fantasiazu eta Sakramentario guziak, Jesus Kristek pronuntiatu ukan duenaren gainean, Haur da ene gorputza: eta, Kopa haur da ene odola.

39 Guk dugu sinhesten ezen Iainkoak nahi duela mundua den gobernatu legez eta politiaz, munduko guthizia desordenatuen reprimitzeko eta hertseko zerbait brida denzat: eta hartakotzat ordenatu ukan duela Resumak, Republikoak, eta berze Prinzipaltasun guziak sukzesionez liraden, baieta iustitiaren estatuari apartenitzen zaion guzia: eta Iainkoa bera nahi da hetako author eta iabe ezagutu, eta halakotz majistratuen eskuan ezarri ukan du espata: ez solament haren manamenduetako bigarren Taularen kontra egiten diraden bekatuen reprimitzeko eta punitzeko, baina lehen Taularen kontra egiten diradene ere bai. Behar da bada, hala ordenatu duenagatik, ez solament sufri eta eder-ets dezagun superioerek domina dezaten, baina ohora ditzagun eta reberentiatan eduki, haren Loktenent eta Ofizier bezala, nola ezarri ere hark baititu halako kargu legitimo eta saindu baten exerzitzeko eta gobernatzeko.

40 Guk dadukagu bada ezen haien legeak eta ordenanzak begiratu eta obeditu behar diradela, baieta tributak, thaillak eta goitiko zuzenak pagatuz, behar dugula borondate libre batez eta gogotik haien suiektioezko uztarria ekarri, infidel liraden orduan ere: baina bethiere Iainkoaren Inperio subiranoa oso eta bere estantean gelditzen dela. Eta hunen gainean guk ditugu abhorritzen, gehientasunak eta superioritateak kendurik, eta iustitiaren politia eta ordenanza guzia erauzirik, gauza guziak komun eta konfus egun nahi litukeizten guziak.

FINA